

HORIZON 2020 PROGRAMA (2014-2020)

ERREFERENTZIA

Horizon 2020 Programa (2014-2020). (Europako Batzordea. Ikerkuntza eta garapena ZN).

HELBURUAK

Europar Batasunak ikerkuntza eta berrikuntza jarduera gehienak, 2014-2020 aldirako Horizon 2020 izena duen Esparru Programan biltzen ditu hiru zutabeen ezarpenaren bidez. Honen bidez, gizarte-erronka nagusiei aurre egiten, Europan industria-lidergoa sustatzen eta bere oinarri zientifikoaren bikaintasuna sendotzen laguntzen du.

Horizon 2020 programak, lehen aldiz, ezagutzaren sorkuntzatik merkatutik gertuen dauden jarduetaraino diren fase guztiak biltzen ditu: oinarritzko ikerkuntza, teknologien garapena, demostrazio proiektuak, ekoizpen lerro pilotuak, gizarte-berrikuntza, teknologiaren transferentzia, kontzeptu probak, normalizazioa, aurre-merkatal erosketak publikoei laguntza, arrisku-kapitala eta berme-sistemak.

EKINTZAK

I. Zutabea: ZIENTZIA BIKAINA.

Helburua, mundu mailako zientzia esparruan, EB-ren posizioa sendotzen lagunduko duen bikaintasunezko zientzia eratzea da, eta horretarako:

-Nazioarteko partzuergoko lana derrigorrezkoa izan gabe mailarik altueneko europar zientzialariak diruz laguntzen dituen Ikerketarako Europako Batzordearen diru-hornidura handituko da eta sektore guztiak betetzen dituen etorkizunerako teknologien eremua handitzen da.

-Ikertzaileen trebakuntza, mugikortasuna eta prestakuntza eta ikerketa azpiegiturak babesteko Marie Curie-ren ekintzak mantentzen dira.

II. Zutabea: INDUSTRIA-LIDERGOA.

Industriarako funtsezkoak diren teknologien bertsio desberdinak ditu, hala nola, Informazio eta Komunikazio Teknologiak, nanoteknologiak, ekoizpen aurreratua, bioteknologia eta espazioa. Zutabe honetan Enpresa Txiki eta Ertainetarako (ETE) jarduerak nabarmentzen dira. Hauek, gizarte-erronka eta erronka teknologikoetarako elkarlan-proiektuetan parte-hartu ahal dute, horretarako, finantziario helburutzat, gutxienez, aurrekontuaren %20a ezartzen delako.

Gainera, enpresa hauek "ETE baliabidea" delako tresna dute eskura. Honen bidez, kontzeptuaren ebaluazio eta garapenerako bideragarritasuna, demostrazio eta erreplikazioa merkatuan edota, emaitzen ustiapena errentagarri egiteko zerbitzuekin, komertzializaziorako laguntza finantza daiteke. Tresna hau botton-up da, gutxieneko partzuergorik gabe eta, europar dimentsioa duen berrikuntza proiektu baten bidez nazioarteko bihurtzeko edo handitzeko asmoa duten ohiko ETE edo ETE berritzaileei laguntza ematera bideratuta dago.

III. Zutabea: GIZARTE-ERRONKAK.

Arreta, bizitza hobe baterako funtsezkoak diren sei esparrutan oinarritzen da: osasuna; elikadura eta nekazaritza, itsas-zientziak barne; energia; garraioa; klima eta lehengaiak; eta gizarte-inklusiboak eta segurtasuna.

Emaitzak hiritarren arazo zehatzak konpontzera bideratzen dira, hala nola, gizartearen zahartzea, babes informatikoa edota eraginkorra eta karbono isuri baxukoa den ekonomiarako transizioa.

Gai HORIZONTALAK:

- Zientzia Gizarterako.
- Bikaintasuna barreiatu eta parte-hartzea zabaldu.

ONURADUNAK

Edozein enpresa, unibertsitate, ikerketa zentro edo pertsona juridiko europarra.

Programaren aktibitate gehienak, hiru estatu ezberdinetako hiru pertsona juridikoz osatutako partzuergoei zuzenduta daude. Badira ere modu indibidualean aurkezteko aukera ematen dituzten salbuespen batzuk.

AURREKONTUA

77.028.300.000 euro

GAUZATZE ALDIA

2014-2020

INTERESEKO ESTEKAK

[Europar Batasuneko Ikerkuntza eta berrikuntza Esparru Programarako espainiar ataria Programa onartzen duen erabakia](#)

INFORMAZIO GEHIAGO

Europar bulegoa

+34 91 603 79 84

h2020@oficinaeuropea.es

CDTI (Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroa)

Ekonomia eta Lehiakortasuna Ministerioa

91 581 55 00

ERABILERA KIROLEAN

Adibidez, honako proiektu mota hauek aurkeztu daitezke:

- Material berrien ikerketak, probak etab...kirol sektorean erabilitako produktuak bideratzeko I + G proiektuak;
- Kirolaren munduarekin lotutako negozio linea berritzaile berriak garatzea;
- Esate baterako, aurreko deialdietan proiektu berriak onartu ziren, produktu berriak zelai artifizialaren alorrean, kirol-oinetakoentzako material berrien erabilerari buruzko ikerketak, negozio-linea berrien garapena, etab.